

Ezpalak

JON TORNER

Periscopio: Hamaika erakusketa, 700 argazki



IRAGAN ASTEAN inauguratu zituzten Gasteizko *Periscopio* egitasmoa osatuko duten erakusketak. World Press Photo lehiaketa ezaguneari saritutako irudiak ikusi ahal izango dira abenduaren 9ra bitartean. Hamaika erakusketa paratu dituzte, bakoitza hiriko leku batean. Jorge Lopezek Txernobilgo (Ukraina) argazkiak bildu ditu Goiuri Jauregian, Viktor Drachev-ek sobietar errepublika ohietako (Georgia, Bielorrusia...) irudiak Espainia Plazan, Isabel Muñozek El Salvadorreko Maren erretratuak Vital Kutxa aretoan, Emilio Morenattik Pakistaneko emakumeek bizi duten egoera gogorra islatu du Arte Ederren Museoan... Orotara hamaika erakusketa, eta 700 argazki baino gehiago.

erri Jauregian, Viktor Drachev-ek sobietar errepublika ohietako (Georgia, Bielorrusia...) irudiak Espainia Plazan, Isabel Muñozek El Salvadorreko Maren erretratuak Vital Kutxa aretoan, Emilio Morenattik Pakistaneko emakumeek bizi duten egoera gogorra islatu du Arte Ederren Museoan... Orotara hamaika erakusketa, eta 700 argazki baino gehiago.

Donostiako eskulturak sarean

SAN TELMO MUSEOAREN webgunean (www.santelmomuseoa.com), Donostiako kaleetan modu finkoan dauden 90 eskulturen katalogoa eskegi dute. Arduradunek azaldu dutenez "eskultura atlasa" osatzen dute XIX, XX eta XXI. mendeetan helburu artistikoekin sortutako artelaneak; horien artean daude Chillida eta Oteizarenak, besteak beste.

● **Aritz Gorrotxategi idazleak *Beterriko Liburua* aldizkarian:** «Une honetan goi-mailako literaturari begira gaudela iruditzen zait, beste ezeri baino gehiago, eta entretenimendua gaizki ikusita dagoela gurean. Entretenitzen duen liburua mespretxatu egiten da. Orduan, beldurrez edo, inork ez du entretenimendua esaten, ez ez, denok goi literatura egiten ari gara. Baina hori gezurra da».

● **Aitor Espie ilustratzaileak *Noticias de Gipuzkoan*:** «Jada ez dut leku bat egitea bilatzen artearen munduan. Jada ez zait interesatzen. Bideragarriagoa ikusten dut ilustrazioaren mundua, nahiz eta zaila dagoen baita ere, sormen handiko jende trebe asko dagoelako, baina ni oso motibatuta nago oraintxe bertan, batez

Eusebio Erkiagaren *Aspaldiko Maigret* itzulpen lana publikatu dute Bilboko Udalak eta Labayru ikastegiak. Lana Andres Urrutia euskaltzainak berreskuratu du urte luzez galduta egon eta gero. Erkiagak 1954an itzuli zuen George Simenonen detektibe liburu ezaguna (*La première enquête de Maigret*) eta pertsona bati eman zion argitaratzeko; orduz geroztik galduta egon da. Andres Urrutiak Euskaltzaindian aurkitu zuen itzulpenaren kopia bat eta Erkiagarena dela baieztatu du jatorriko liburuarekin kontrastatu eta gero.


Luis de Pablo konpositore bilbotarrak Tomas Luis de Victoria Musika Sari Iberoamerikarra jaso du. 79 urteko musikagilearen ibilbidea omenduko du 60.000 euroko sariak. Ohore handia dela adierazi du De Pablok. 1950eko hamarkadan, europar abangoardiara ireki zuen musika kultura.

Josean Bengoetxeak irabazi du Donibane Lohitzuneko Zuzendari Gazteen Zinemaldiko aktore onenaren saria, Roberto Castonen *Ander* filmean eginiko lanarengatik. Pelikula horrek sari ugari jaso ditu dagoeneko nazioarteko zinemaldietan. Argazkiaren erdian dago Bengoetxea.



ere umeak ditudanetik. Euren mundua kutsatzen didate, euren kodigo eta errealtateak ikasten ditut. Eta hori orain gehiago interesatzen zait, artearen munduko kode irreal, hutsal eta harroputzak baino. Oso aberasgarria iruditzen zait haurren mundua».

● **Irati Elorrieta idazleak *Berrian* :** «Askok uste zuten baino lehenago, gure kultur objektu zaharreneak, liburua, aro digitalera sartzera doa (...) Eta krisian ez da egongo liburua, baizik eta negozioaren erdua. Hor hitz egiteko asko dago. Egile eskubideak, merkatuaren kontzentrazioa, sasi-monopolioak. Digitalizazioa desafio berria da, baina arazoak ez dira berriak (...) Liburu batekin sortzen den harreman emozionala ezin da digitalizatu».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: www.argia.com/harpidetza_haria.php

Abarrak

MIKEL GARCIA

Arrakasta handia du, ego are handiagoa, politikoki interesatua da... Nor da?

Mis problemas con Amenábar.
Jordi Costa (testua), Darío Adanti (marrazkia)
Argitaletxea: Glénat. 44 orri. 2009

BURURA ez dakit zein etorri zaizun zuri... Titularreko ezaugarri horiek –eta beste gordinxeago batzuk– egotzi dizkio Jordi Costa kritikari katalanak, Darío Adanti marrazkilariaren laguntzarekin, Alejandro Amenábar zinema zuzendariari. *Mis problemas con Amenábar* lanean, zuzendari gaztearekin aurkitu denetan izandako esperientzia txarrak abiapuntu hartu ditu Costak, Amenábarren filmagintza eredu eta, oro har, eredu hori onartu eta sustatzen duen Espainiako filmagintza larrutzeko. Eta Jordi Costa ez da edonor zinema munduan: kasik 30 urte daramatza kritikari lanetan, beste ugariren artean *El País* eta *Fotogramas* agerkarietan ari da egun, eta prestigioako profesionala da bere alorrean.

Sakoneko arazoa, Costaren ustez, benetako talentuaren simulazioa eta konpetentzia teknikoa oinarri dituen eredu zinematografikoaren kontsagrazio eta zabalkuntza birikoa da, *status quo* mantentzera eta bultzatzera bideratzen baita sorkuntza kolektiboa. Hala, jendeak gurtu ditzan erakuslehoan jarritako



pertsonaia handikiez mintzo da Costa, eta hori guztia babesten duen fenomenoaz. Egia esan, oro har kultur munduan ikusten dugun jarrera da, Espainian ez ezik, baita Euskal Herrian eta gainontzeko lekuetan ere: politikariek kultura berengantatu nahi dute, euren *status quo* idilikoa herritarrei idatzi, abestu, filmatu, margo-tuko dien kultur gilea nahi dute ondoan; berme kulturala bilatzen dute, maila jantzia. Eta kultur gile hori goratuko dute, sariekin, ospearekin, asmatu-riko prestigioarekin, jendeak benera dezan.

Kultur (kasu honetan zinema) eredu ustel horren adibide gorentzat du kritikari katalanak *Agoraren* egilea: talentu faltan, beste filmetatik ideiak hartzea leporatu dio; mezuekin errazkerian eta efektismoan erortzea (*Mar adentro*); politikoki epel eta zurikeriatan aritzea, garaiaren arabera mezu politikoa egokituz, gaur PPrekin (*Los otros*), bihar PSOerekin (*Mar adentro*); bere homosexualitatea marketin operazio batekin saldu izana; eta abar.

Onartu behar dut *Agora* gustatu zaidala eta *Tesis* bikaina iruditu zitzaidala –bere beste lanak ez hainbeste–, baina hainbat gauzetan ez diot Costari arrazoa kentzen. Finean, batzuetan gehiago begiratzen diogu azalari, edukiari berari baino. Eta Amenábar aitzakia baino ez da.

gure!
arteak
euskaraz

